UEMA, familia, euskara

GUTXI barru hiru urte beteko ditu UEMAk. Urte hauetan aurrepauso sendoak ezarri nahi izan ditu, luzera joko duen bide honetan. Hasierako helburua, Mankomunitatearen barnean dauden herrietan funtzionamendurako epe labur eta ertainean beharrezkoak diren baldintzak betetzea izan bada ere, beste erronka bati aurre egin nahi izan diogu, familiaren inguruan hain zuzen: familiaren bitartez ematen den hizkuntzaren, euskararen transmisioa.

Horretarako UEMA barrenean dauden herrien eremua hartu da. Hala ere, oso eremu, egoera ezberdinak landuko dira, geografikoki, demografikoki zein soziolinguistikoki. Erabilera mailak bereiztuko du herri hauetako errealitatea. Orexa bezalako herriak badira eta bestetik hortxe dugu Bermeo, helburutan asmo bera izan arren abiapuntu ezberdina eskatzen duena.

Herri bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta hau kontuan hartuz eskakizun eta betebehar espezifikoak sortzen dira. Abiapuntua jakinik, 'Maila guztietan euskaraz bizi' delako helburu orokorra lortzeko, hiru mezu landu nahi ditugu: 'Etorkizuna euskaraz dator', 'Euskaraz irakurtzea eta idaztea gauza erraza da' eta 'Euskara ez da haurren, umeen kontua bakarrik'.

Etorkizuna euskaraz dator. Komentario gisa lehenik eta behin esan etorkizuna euskaraz etorriko dela baldin eta guk nahi badugu. Azken urte hauetan ezagutza maila gero eta handiagoa lortzen ari da, baina ez da berdin gertatzen ari erabilerarekin. Badirudi, hutsune handiak egon arren, gero eta bitarteko gehiago lortzen ditugula, baina gure jarrerak, konpromezuak, euskaldun orori, bakoitzari dagokionak huts egiten du. Azken urte hauetan ere, proportzionalki gutxiago erabiltzen dugula somatzen da.

Bigarren mezuari dagokionez; 'Euskaraz irakurtzea eta idaztea gauza erraza da' dioenari buruz alegia, zer esaterik ere badugu. Beti pentsatu izan ohi dugu trebetasunik ez dugula, kapazak ez garela horrelakorik egiteko, beldurra sortu izan zaigu gure barnean. Erderara jotzea nahiago izan dugu aipatutako betebeharren bat gertatu zaigunean.

Azkeneko mezuari dagokionez, 'Euskara ez da haurren-umeen kontua bakarrik', esanahi eta errealitatearen isladapen handia adierazten duen mezua dugu. Haurrei euskaraz hitzegiten diegu kalean eta etxean, euskarazko ikastetxeetara bidali edo eramaten ditugu, baina gure egitekoa ez da hor amaitzen. Egindako guzti hori ez da aski gure artean, bikote kideen artean, lagunen artean, erdaraz mintzatzen bagara, erderaz adierazten baditugu gauza errazak, sentimenduak edo beharrak.

Kanpainaren leloak dioen bezala: familiaren bidezko transmisioa, familia hartu dugu proiektu honen zutabe moduko elementu. Hartzaile nagusia umea eta haurra izanen da. Bere ingurune hurbila aztertuz sentsibilizazioa landu nahi da erabilera areagotu dadin. Gurasoen hizkuntz egoera aztertzerakoan tipologia bat jarri nahi izan dugu. Guraso euskaldunak lehenik, mistoak bigarrenez eta erdaldunak hirugarrenez.

Ikutu nahi den beste esparrua Eskola da. Eskolan, hezkuntza prestaketak eta umearen bilakaera pertsonala eta sozialak duen garrantzia kontuan hartuz, herriaren egoera partikularra ahaztu gabe, behin eta berriz errepikatzen dugun moduan, eduki ezberdinak landu nahi dira, aurrez ezarritako helburuetara irits gaitezen. Honek, irakasle eta Eskolako beste elementu edo talde ezberdinen inplikazioa eskatzen du. Hirugarren esparruari Kanpoko iharduera deritzogu, familiatik, eskolatik kanpo bizitzen duguna: kalea. Hemen aisialdiari eman nahi diogu indarra, denbora librea betetzeko antolatzen diren ekintzei hain zuzen. Honen bidez luzatu nahi dugun mezua hauxe da; aisialdia ere euskaraz bultzatu.

Kanpaina nondik nora joan nahi duen, zer lortu nahi den erakusten saiatu gara baina inplikazioaz hitzegiterakoan ardura berezia eskatzen diegu abertzale eta euskaltzale definitzen diren talde eta, bereziki, alderdi politikoei. Benetako konpromezua hartzea eskatzen dugu. Euskarak jasaten duen erasoa kontuan hartuz, lehentasunezko jorragai bihurtzen zaigu. Neurri zehatzak behar ditugu, proiektu zehatzak aurkezten direnean, batez ere. Horretarako hona hemen gure adibide garbia; eremu euskaldunetan euskararen erabileraren normalizazioa bermatzea, aurkitzen saiatzea. Parte hartu duenarentzako apustua! Joka ezazue!

MIKEL ILARREGI
UEMA-KO ZUZENDARITZA BATZORDEKO PARTAIDEA

Autodeterminazioa 'revisited'

NAZIO Batuen Erakundearen (NBE) autodeterminazioari buruzko agiri desberdinetako konstatea *status quo* estatarrari atxekitzea da, nazioarteko ordenu juridikoa estatuen artekoa baita Bill Felicek, Nazioarteko Herrien Ligak NBEren aurrean daukan ordezkariak, idatzi duen moduan, ('Derechos humanos individuales, Derechos de los Estados, Derechos de los Pueblos', Herria 2000 Eliza, 1990), «NBEren agiriak herritzat hartu behar denari itzuri egiten zaizkio». Hori dela eta, 1990ean, Bartzelonan CONSEU izenekoak (Conferencia de Naciones sin Estado de Europa) garrantzi handiko agiria plazaratu zuen, herria, nazioa, eta autodeterminazioa kontzeptuak argituz eta zehaztuz, aipaturiko liburuan bertan irakur daitekeenez.

Estatuaren jainkotzea, beste aldetik, Europako Justizi Ministrarien Konferentzian Espainiako delegazioak egin zuen ponentzian ikus daiteke ('Federalismo, regionalismo y protección de minorías', Lugano, 1993ko ekainak 22, *Council of Europe* delakoak argitaratua), non Europako Estatu bakoitzaren 'subiranotasun nazionala' *(sic)* behin eta berriz azpimarratzen den, beste edozein erreibindikazio 'gutiengoen' eskubideetan sartuz, autodeterminazio-eskubideaz jabe den 'herria' Estatu bakoitzaren barneko hiritargoa izanez, eta autonomia desberdineko Espainiar Estatua federazio funtzionaltzat *(sic)* aurkeztuz. Gurpil zoroan aritzeak ez dio axola espainiar ministrariari, Estatua izateko autodeterminazio-eskubidea jadanik Estatutzat antolaturik dagoenari soi-soilik dagokiola idazten duenean.

Tranpa argi dago. Izan ere, NBEren 'herria' kontzeptuari buruzko zenbait testuren indefinizioan oinarrituz, herri eta nazio baten subiranotasunaren aldarrikapen legitimoa baztertzen ahalegintzen da aipatu ponentzian, herria 'gutiengoaren' *ghetto*-an sarreraziz, eta benetako nazioa(k) bera(k) 'zatiezinezko' den Estatuan autonomia edukitzeko eskubidea daukan 'nazionalitate' bihurtuz, geroxeago NBEk berak gutiengoentzat eman zenbait arau aplikatu nahiz.

Hala ere, ponentzia espainiarraren zatirik onena eta adierazgarriena beraren hasieran dago. Izan ere, honela irakur daiteke:

«... la comunidad internacional rechaza también desde hace varios decenios una ideologización de la diversidad que conduzca a posiciones autodeterministas, violando el principio bien anclado desde la Sociedad de Naciones, de la lealtad de las minorías hacia el Estado en el cual la historia le has situado».

'Historiaren' jarrera hiperhegeldar hori totalitarismoaren indarkeria besterik ez da. Hortik berehala aterako baita indarra erabiltzearen 'legitimotasuna' Estatuari berari, eta ez beste inori dagokiola. Estatua izanen da jaun eta jabe, jainko berria. Baina delako 'historia' hori analizatzeko ez al dira kontutan eduki behar baldintza objetiboak eta subjetiboak? (nahiak, desioak, gurariak, jendea azken batez).

Beste aldetik, non kokatzen da 'gutiengoak' beren 'lekuetan jartzen' dituen 'historia' hori? Zein paradisu edo zerutan? Espainiar delegazioak aipatu 'historia' hori itxia da ala irekia? Zeinek egingo du 'historia' hemendik aurrera? 'Historian' indarrean dauden estatuek soilik? Nola adierazi, orduan, gaurko Estonia, Letonia, Lituania, Txekia edota Eslobakia? Nola esplikatuko biharko Quebec edo Irlanda batua? Zelan batu zen gaurko Alemania?

Autodeterminazio eskubidea herriari badagokio, herria den aldetik, zer ote da Euskal Herria bere osotasunean? 'Historiak', indarkeriaz, bi estatutan banatu bagaitu ere, herri bat eta bakarra osatzen dugu, kurduek, bost estatutan sakabanaturik egon arren, herri soil eta bakarra osatzen duten moduan.

Estatuen sakralizazio, jainkotze eta hiperideologizazioaren kontra, gaur egungo estatuaren *statu quo-aren* logikari aitzi, zeinak pobrezia, langabezia, triskantza ekologikoa, kanpo-zorra marginazioa, injustizia, eta beste hamaika sofrikario ekarri dituen, herrien eskubideak aldarrikatzeko eta praktikan jartzeko ordua iritsi da. Eginkizun horretan arazo nazionala eta arazo soziala (zentzu zabalean) batu beharrean gaude 'barne autodeterminazioa' 'kanpo autodeterminazioari' itsatsiz, historia, *malgré eux*, irekia da eta.

JOSEBA TOBAR-ARBULU
HERRIEN LIGAKO KIDEA

BERRIAKZIRI

JOSEBA EGIBAR
EAJko Euskadi Buru Batzarreko bozeramailea
ARGIA

«Estatutua garatu ezean, ikusiko dugu Konstituzioaren zein zati ez bete»

MBUYI KABUNDA
Zaireko Unibertsitateko irakaslea
DIARIO DE NOTICIAS

«Mendebaldean ez dira konturatzen Afrika osoan dagoen barne urradura errealaz, gizarte zibilaren eta estatu modernoaren arteko gatazkaz»

IGNACIO GORDILLO
Espainiako Entzutegi Nazionaleko fiskala
EL DIARIO VASCO

«Lehenago edo geroago, beti lortu ditugu emaitzak GALei buruzko ikerketetan»

MIKEL SARALEGI
Harrijasotzailea
DIARIO DE NAVARRA

«Harria gainditu behar duzun etsaia da. Eta batez ere orain, inoiz baino zailagoa baita jasotzea»

ZAKILIXUT

© Olariagak